

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2012ko ekainaren 5a. IX. urtea. 2.361. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Euskara eta lana uztartzeko ikastaroa abian jarriko dute

Tolosako Udalak bultzatu du, eta Banaiz Bagarak eta Emun-ek emango dute; ostalaritza eta merkataritza alorrei zuzendutakoa da ◦2

Ingurumenaren Eguna gogoan, hainbat ekitaldirekin

Aste Berdearen barruan, gaur Alegian, Ibarren, Tolosan eta Villabonan antolatu dituzte; azken herri horretan, udalak zero zabor estrategiari buruz duen ikuspegia emateko, hitzaldi sortari hasiera emango dio Amasako kultur etxean ◦3



→ **3.000 pertsona, Eskola Txikien Festan.** 25. urteurrena ospatu zuen Eskola Txikien Festak, Larraulen. Ekitaldi nagusian 120 lagun igo ziren taula gainera, eta herri eta eskola txikiak duten garrantzia nabarmendu zuten, «txikiaren handitasuna» aldarrikatuz. Lekukoa Olaberriako eskolari pasa zion Larraulek. ◦5

Iker Karrera marka guztiak hautsi ditu Hiru Handiak mendi proban

Amezketarrak aurreko marka ordu t'erdian hobetu du; Nerea Amilibia zizurkildarra bigarren sailkatu da, 13 ordu eta 47 minutuko denborarekin ◦7

Presoen egoeran sakontzeko aukera Agirrebarrenaren urteurrenaren harira

Lizartzako presoak atzo bete zituen 10 urte kartzelan; herritarrek preso ohi bat gonbidatu dute gaur, 20:00etan, hitzaldia eskaintzeko ◦6



Agirrebarrenaren senitartekoak, Lizartzan duten tabernaren atarian. A. IMAZ

Uda honetan **zatoz** HITZAren itzalera

Egin harpidedun Ekainaren 4tik Uztailaren 27ra eta jaso eguzkitako hau oparit

Harpidedunen artean **eguzkitako surf taula** merkatua dago

Harremankidetzarako: **902-82 02 01** harpidetza@hitza.info

hitza

SALESIANOS urrieta SALESIARRAK

LANBIDE HEZIKETA FORMACIÓN PROFESIONAL

Ofiziu grafikoa, Inprimaketa, Serigrafia, Merkataritza, Zerebitarioa, Zerebitarioa, Ofiziu grafikoa, Inprimaketa, Serigrafia, Merkataritza, Zerebitarioa, Zerebitarioa

MATRIKULAZIOA MATRIKULACION

Plazazaren 28tik ekainaren 8ra, Del 28 de Mayo al 8 de Junio.

zatoz ven

www.salesianosurrieta.com



Kristina Morales, Inaki Irazabalbeitia, Petra Elser eta Eider Alustiza, aurkezpenean. I.G.L.

Lanean euskaraz egin ahal izateko NEL ikastaroa antolatu du udalak

Banaiz Bagarak eta Emun-ek emango dute, eta ostalaritza eta merkataritza alorrekoen zuzendutakoa da

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosako Udalak NEL (Nik ere Euskaraz Lanean) ikastaroa antolatu du, ostalaritza eta merkataritza aritzen diren langileek lanean euskaraz egin ahal izateko trebatzeko. Egitasmoaren aurkezpenean Inaki Irazabalbeitia Hezkuntza eta Hizkuntza Politikako zinegotzia, Petra Elser Banaiz Bagara elkarteko kidea, Eider Alustiza Emun-eko kidea eta Kristina Morales Immigrazio teknikaria izan dira.

Irazabalbeitiak azaldu duenez, «programa berritzailea da». Tolosa eta Tolosaldea inguru eskalduna izanik, «egokia eta beharrezkoa iruditzen zaigu azken urteotan eskualdera etorri diren pertsona horiek euskarara eta euskal kulturara hurbiltzea», azaldu du zinegotziak. «Batetik, erosago sentitu daitezten, euskaraz egiteko gaitasuna izatea eta ez sentitzea aparte gure gizartean, eta, bestalde, euskararen geroa

ziurtatzeko». Programak ezaugarri garrantzitsu bat duela nabarmendu du Irazabalbeitiak: «Lana eta euskaraz lotzen ditu». Euskaraz lanean aritzeko garrantzitsua da eta leku askotan beharrezkoa da eta erreztu egiten du euskarara hurbiltzeko», gaineratu du zinegotziak.

Petra Elser-ek esan duenez, NEL ikastaroarekin «oztopoak gutxitu» nahi dituzte. «Pertsona askorentzat eta batez ere kanpotik etorri direnentzat, bide oso luzea dirudi erderatik euskarara», azaldu du Elser. «Askotan euskararekin lotuta dagoen ideia da ikasi behar duzula zerotik EGARaino, batez ere lan munduan ari zarenean». Egitasmo horrekin bide praktikoa erakusten dute azaldu du. «Pertsona batek behar dituen hitzak eta esamoldeak landu nahi dira», zehaztu du.

Euskararen normalizazioaren barne kokatu dute ikastaroa. «Bereziki erositak edo zerbitzuak euskaraz jaso ahal izango ditu», azaldu du Elser-ek. Parte hartzaileen perfla irekia da, bereziki etorkinen beharrei eta aldi berean, orokorrean euskaraz ez dakitenei zuzenduta dago.

Bi talde egin dira, horietako bat langileei begira, eta bestea emple-

gatzailleentzat. Langileei zuzendutakoak 14 saio ditu eta enplegatzailleentzat denak 5 saio. Ikastaroaren hasiera hilaren 12an izango da, eta izena eman nahi dutenek udalaren euskaraz departamentura deitu behar dute, 943 697453 zenbakira.

Eider Alustizak nabarmendu duenez, ikastaro praktikoa izango da: «Lanerako behar duten euskaraz horixe landuko da. Printzipioz ulermena lantzeko, gutxienez euskaraz egiten duen bezeroari ulertzeko zer eskatzen duen. Idealizatzen hasita, zer hobeto euskaraz erantzuten ikasten dauden. Ikastaroa elkarte gastronomiko batean egitea pentsatu dute, are praktikoa egiteko.

Bestalde, hizkuntzarekiko jarraiera landuko dute. «Hemengo errealitatea erakutsi nahi dugun», esan du Alustizak. «Erakutsi nahi dugu zergatik ari garen hainbeste herritar euskararen garapenean lanean». Horrekin batera, ikastaroa egiten duenaren hizkuntzarekiko duen ibilbidea landu nahi dute, «guk ere errena ulertzeko. Nolabaiteko enpatia sortu nahi da guztion artean», gaineratu du Alustizak.

Esan bezala, langileei zuzendutako ikastaroan oinarritzeko hizkuntza tresnak ikasiko dira, eta enplegatzailleei zuzendutakoan, ikasten ari den langileari prozesu hori errazteko nola lagundu ikasiko dute.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Asteburuetan eta jai-egunetan eguerdiz lan egiteko, esperientziadun zerbitzaria behar da, Lekunberrin dagoen jantoki baterako. Interesatuak, deitu 659 015247 telefono zenbakira.

Irudia ◊ Lizartza



INA ZEBERIO, GOGOAN

Ina Zeberio gogoan izan zuten asteburuan, Gernikan (90 pertsona inguru izan ziren) eta Lizartzan (200 pertsona inguru izan ziren) egindako ekitaldietan. Zeberio «eraila» izan zela salatu zuten beste behin ere, eta «eraildako guztiak gogoan izatea, memoria historikoa osatzeko modua dela» aldarrikatu zuten. HITZA

Kontsultaren aurreko azken batzar irekia, bihar, Arkauten

I. Garcia Landa Tolosa

Larramendi auzoko kontsultaren aurreko azken informazio saioa bihar, 19:00etan, Arkauteko etxean (Gurutze Gorria) egingo den batzar ireki bitartez izango da. Tolosako Udalak bandoa kalera du eta, horren bitartez, Ibai Iriarte alkateak dei egiten die auzotar guztiari prozesuan parte hartzea, «zuen auzoaren egitura zehazten iritzia eman dezazuen; azken finean, hitza har dezazuen». Kontsultan auzoan erroldatuta dauden 18 urtez gorako auzokide guztiak parte hartu ahaliko dute.

Krisiari buruzko lau alderdiren proposamena aurkeztuko dute

I. Garcia Landa

Tolosaldeko Alternatiba, Aralar, Eusko Alkartasuna eta ezker abertzaleak hitzaldia antolatu dute, gaurko, 19:30ean, Tolosako kultur etxean, beren proposamen sozio-ekonomikoaren aurkezpena egiteko eta «bizi dugun egiturazko krisiaren aurrean, alternatiba integral bat osatzeko». Hizlariak Ainhoa Beola (Aralarko kidea) eta Hasier De los Rios (Eusko Alkartasunako kidea) izango dira. Eskualdeko herritar guztiak gonbidatu dituzte «izaera irekia izango duen hitzaldira».

→ Laburrak

28 Kanaleko antenan lapurretaren gaitza

TOLOSA › 28 Kanalak Adunan duen antenan lapurretaren gaitza, eta horregatik ezin izan da ikusi Villabona, Zizurkil, Astearsu, Larraul eta Adunan. Ahal duten azkarren ekipo berri bat jarriko dute. «Nahiz eta gure errua ez izan, barkamena eskatu nahiko genieke ikus-entzuleei sortu dieten eragozpenengatik», azaldu dute 28 Kanalek.

'Altzoko Haundia' CDaren entzunaldia, bihar Topic-en

TOLOSA › Altzoko Haundia txikien operaren CDa aurkeztuko dute gaur, Donostian. Bihar, 19:00etan, Topic zentroan CDaren entzunaldia egingo dute. Bertan CDa 12 eurotan erosi ahaliko da, berez 14 eurotan denean.

Laskorain ikastolako egunaren txartelak salgai

TOLOSA › Ekainaren 10ean Laskorain ikastolaren eguna ospatuko dute. Ikastolako guraso, langile eta ikasleentz gain, irakasle eta ikasle ohiek parte hartu nahi izango balute, bazkari txartelak eskuratzeko lehenbailehen idazkaritzara joatea eskatu dute.

San Joan jaien inguruko jai batzordearen bilera, bihar

TOLOSA › Bihar, jai batzordearen bilera izango da, 19:00etan, kultur etxean. Sanjoanetako behin betiko egitarauaz eta aurrekontuaz ariko dira bilera horretan.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ingurumenaren Egunaren harira, ekitaldi sorta antolatu dute eskualdean

Zero zabor estrategiaren berri emango die Amasa-Villabonako udalak herritarrei hitzaldien bitartez

Iñigo Terradillos

Mundu osoko egutegiak Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dela gaurkoa adierazten dute. 1972az geroztik da horrela, urte horretako abenduaren 15eko Nazio Batuen Batzar Nagusia hala onartu baitzen. Herritarrek ingurumenak duen garrantziak jabetzea da egun honen helburua, eta horretarako hamaika ekitaldi eta ekimen antolatzen dira. Eskualdean ere, egunarekin bat eginez, hainbat ekitaldi izango dira gaur, eta baita datozen egunetan ere, Tolosaldea Garatzenek koordinatuta.

Igandean hasi ziren ekitaldiak, Tolosan ikusgai izan zen *The wish fish* filmarekin. Atzo, berriz, Ibarren *eko* etiketaz aritu ziren solasean, mahai inguruan.

Gaurkoari dagokionez, Alegian, Ibarren, Tolosan eta Villabonan izango dira ekitaldiak. Alegian, *Arandonos la piel. Elkadura burujabetza eraikiz Ugandan* erakusketa irekiko dute, 17:00etan. Celia Murias argazkilararen irudiekien osatu dute kultur etxean, eta ekainaren 30era arte egongo da ikusgai. Inaugurazioarekin batera, Abbas Taburek eta Idoia Sanchezek ipuin afrikar bat kontatuko dute.

Ibarren, txakur kaken inguruko sentsibilizazio kanpaina egingo dute Uzturpe ikastolako 9 eta 10 urteko ikasleek. 11:30etik 13:00etara bitarte Ibarako kaleetan txakur kakak bilatzen ariko dira, eta aurkitzean, banderaxoak jarriko dituzte. Herria garbi eta txukun mantentze aldera jabeak kontzientzia izango du helburu ekintza honek.

Tolosan, goizean zehar ingurumenari buruzko galdeketa egin-



Arregi eta Bilbao, Villabonako ingurumen zinegotzia eta teknikaria. I. I.

go dituzte Eskolako Agenda 21 programan parte hartu duten Tolosako ikasleek. Arratsalderako, berriz, Yago Herrero *Proposamen ekofeministak, zorrez: jositako sistema batentzat* hitzaldia eman behar zuen, udaletxean, baina bertan behera geratu dela jakinarazi dute.

Villabonan, hitzaldiak

Villabonan izango da gaurko antolaturiko beste ekitaldia. Zero zabor estrategia udalaren ikuspegitik azaltzeko hitzaldia emango dute, 19:30ean, Amasako kultur etxean. Izan ere, Amasa-Villabonako Udalak azaldu duenez, zero zabor estrategiaren «informazio zuzena» eman nahi die herritarrei, eta horretarako hitzaldi sorta antolatu du. Hitzaldi hauek aste honetan eta datorrenean izango dira, euskaraz eta gaztelaniaz.

Rosa Arregi Amasa-Villabonako ingurumen zinegotziak iragan ostiralean eskainitako agerraldian adierazi zuenez, «komunikabide batzuen aldetik zero zabor estrategiaren inguruan eman den informazio ezak eta manipu-

lazioak» eraman du udala herritarrei «informazio zuzena» eskaintzera. «Herritarrek informazio erreala, egiazkoa eta egiaztatutako datuetan oinarritutako jasotzea ezinbestekoa da, non erakusten den irizpide eta ohitura berri batzuk bultzatu behar dira ahalik eta zabor gutxien sortu ahal izateko», azaldu zuen zinegotziak.

Hitzaldietan, hondakin kudeaketaren egungo egoera aztertuko dute, eta zero zabor estrategiari buruzko informazioa emango dute. Halaber, etxean sortzen diren hondakinak jasaten duen prozesua emango dute ezagutzera, eta Amasa-Villabonako etxeetan sortzen den hondakin kopurua jakitera emango dute. Gaur egun dauden bilketa motak ere deskribatuko dituzte.

Hitzaldi sorta hori Amasa-Villabonako Aste Berdearen barruan kokatu dute, eta Amasa-Villabona Ados! lan programan sartzen da, «adostasunean eta parte hartzean oinarritzen den plana». Udalak herritar guztiak egin die hitzaldi horietara joateko gonbita.

→ Laburrak

Sabel erakustaldia, etzi, kultur etxean

IBARRA › Ikasturte honetan sabel dantza kultur tailerrea aritu diren ikasleen emanaldia izango da ikusgai, etzi, 20:00etan hasita, kultur etxean. Ibarako Udako kultura sailetik azaldu dutenez, datorren ikasturtean tailer horretan parte hartzeko gogoia edota interesa duten pertsonak, tailerrea lantzen dena zuzenean ikusteko «aukera paregabea» izango dute. Hala, erakustaldira bertaratzeko gonbita egin diete herritar guztiak.

Elkartasun pintxo potea egingo dute igandean

IBARRA › Ibaratik misio taldeek elkartasun pintxo potea egingo du igandean, hilaren 10ean. India, Ekuador eta Honduraren dituzten proiektuei bultzada ekonomikoa ematea izango du helburu ekimenak, eta horretarako herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzerara.

Zikiro jatean Gaztelun, igande honetan

IBARRA › Haitzetan Raju mendi taldeak zikiro jatea antolatu du igande honetarako, hilaren 10erako. Ibarra-Larte-Uli-Gaztelu ibilaldia egingo dute, eta Gaztelun zikiroa bazkaldu. Facebooken, Zubiaurren, Atarin eta Subegin eman dezakete izena animatzen direnek.

Emeterio Arrese Literatur Lehiaketan izena ematea

IBARRA › Hogeita laugarren urtez Emeterio Arrese Literatur Lehiaketa antolatu du Ibarako Udalak. 16 urte arteko ibartar gazte guztiak parte har dezakete, hiru mailatan banatuta. Ekainaren 15a baino lehen utzi beharko dira lanak kultur etxean edota euskaraz zerbitzuan. Lehiaketaren oinarriek zehazten dituzte, lanek Ibarra izan behar dute ardatz, eta errepor-taje, ikerketa-lan, ipuin ilustratu edo komiki itxura izan dezakete. Euskaraz eta argitaratu eta saritu gabeak izan behar dute aurkezten diren lanak.

Hondakin inguruko hitzaldia, gaur, udaletxean

IKAZTEGIETA › Hiri hondakin badute irtenbidea hitzaldia emango dute Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kideek gaur, udaletxe areto nagusian. 19:00etatik aurrera izango da, eta bertaratzeko gonbita egin diete herritar guztiak.

Minbiziaren Aurkako Elkartaren eskertza

IBARRA › Minbiziaren Aurkako Gipuzkoako Elkarrekin ibartarrei eskerrak eman nahi dizkie, iragan maiatzaren 26ean egin zen diru bilketan parte hartzeagatik. Bertan 725 euro lortu zituzten, eta diru hori minbizi duten pertsonari eta senidei zuzenduriko arreta esku-hartze, prebentzio arloko esku-hartze eta ikerkuntzarako erabiliko dela adierazi dute Minbiziaren Aurkako Elkarrekin kideek.



Bidegoiango Udala

IRAGARKIA

Bidaniko Herri Ostatu Taberna jatetxea zerbitzu kudeaketarako kontratua esleitzeko lehiaketa publikoa.

Bidegoiango Udaltzatzak 2012ko maiatzaren 30en egindako osoko bilkuran, Bidaniko Herri Ostatuaren zerbitzu kudeatza emateko kontratuan, lehiaketa irekian agindu behar duten Baldintza Ekonomiko-Administratibio partikularren Plegua onartu zuen. Plegu hauek jakinarazpen publikora jartzen dira 8 egunez, interesatuek aztertu eta hauei buruz bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izan dituzten, erabakia hartu zuen organoaren aurrean. Aldi berean, emakida honen lehiaketaren deialdia ere egiten da, errekamazioak aurkezten badira, hauek ebazteko behar den denboraz atzeratuko bada ere.

1. Esleitzaila: Bidegoiango Udala.
2. Kontratua:
 - a) Bidaniko Herri Ostatu taberna jatetxearen zerbitzu kudeatzea.
 - b) Emakida epea: 5 urte.
3. Tramitazioa, prozedura eta adjudikazio modua:
 - a) Tramitazioa: Arrunta.
 - b) Prozedura: Irekia.
 - c) Modua: Lehiaketa.
 - d) Litzitazio mota: 300 €/hileko kanona (gehi BEZA), gainetik hobetu ahal izango dena.
4. Bermeak:
 - Behin-behinekoa: Ez dago.
 - Behin betikoa: 1.500,00 €.
5. Informazioa eta dokumentazioa non eskuratu:
 - a) Erakundea: Bidegoiango Udala.
 - b) Helbidea: Bidania cunea, 2
 - c) Herria eta posta kodea: 20.495 Bidegoian.
 - d) Telefonoa: 943.681.109.
 - e) Faxa: 943.681.098.
 - f) E-mail: bidegoian@udal.gipuzkoa.net.
6. Proposamenak aurkezteko modua:
 - a) Aurkezteko epea: 20 egun natural, iragarki hau argitaratzen denetik.
 - b) Aurkezteko beharrezko dokumentazioa: Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Pleguan eskatutakoa.
 - c) Aurkezteko lekua: Bidegoiango Udako Idazkaritzan.
7. Proposamenen irekitzea:
 - a) Erakundea: Bidegoiango Udala.
 - b) Data: Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoko seigarren laneguna.
 - c) Ordua: 13:00.etan.

Bidegoian, 2012ko maiatzaren 31a
Alkateak
Izp.: Joxe Erramun Goikoetxea Amiama

↓ Zero zabor strategiari buruzko hitzaldiak, Amasa-Villabonan

EKAINAK 5, ASTEARTEA

■ **19:30.** Amasako kultur etxean. Euskaraz.

EKAINAK 6, ASTEAZKENA

■ **19:30.** Udaletxe bilkura aretoan. Elizatik Etxe-Ondora arteko bizilagunentzat. Euskaraz.

EKAINAK 7, OSTEGUNA

■ **19:30.** Udaletxe bilkura aretoan. Elizatik Etxe-Ondora bitarteko bizilagunentzat. Gaztelaniaz.

EKAINAK 12, ASTEARTEA

■ **19:30.** Udaletxe bilkura are-

toan. Elizatik Txerminera bitarteko bizilagunei zuzendua. Euskaraz.

EKAINAK 13, ASTEAZKENA

■ **19:30.** Udaletxe bilkura aretoan. Elizatik Txerminera arteko bizilagunei zuzendua. Gaztelaniaz.

Lizartza



TXISTUAREN ERITMORA

Lizartza kultur astearren barnean, III. Dantzari Txiki Eguna ospatu zuten, larunbatean. Kalejira egin zuten herriko hainbat gunetan geldialdiak eginaz. Geldialdi bakoltean dantza saioak eskaini zituzten, gero herriko plazan bukatzeko. Aratzaldian, Urmen Udaberriko Pilota Topaketak izan ziren, eta kantu poteoa egin zuten. [Lizartza](#)

Tolosa



KIROLARI ATEAK ZABALDUZ

Igandean, Tolosan, hainbat kirol egiteko aukera eskaini zuten Kirolari Ateak Zabalik ekimenaren barnean. Ori ibaian, arrauna, piragua, arrantza edota pedaloak jarri zituzten kirola egin nahi zuenak probatzeko. Usabalen, aldi, triatsina, patinaiak eta skiteam ibili ahal izan ziren. [Lizartza](#)

Tolosa



1813 URTEKO TOLOSAKO GUDUA

Andia kultur elkarrekin antolatuta, igandean, alarde napoleonikoa egin zuten, Tolosan. Nafarroako zubirik abiatutako bisita gidatuak eman zion hasiera festari. Ondoren, desfilea egin zuten, eta jarraian gudua antzerkia egin zuten. Bukatzeko, herri bazkaria egin zuten, Zerkausan. Bigarren urtejarraian egin dute. [Lizartza](#)

Ibarra



AUTO ZALEAK ELKAR EZAGUTUZ

Auto zaleak Ibarra San Bartolome plazan elkartu ziren, larunbatean. Bigarren urtejarraian antolatuta dute eguna, Ibarra, Era, Iamaina eta kolore guztietako autoak ikusteko aukera izan zuten. Auto zaleek elkar ezagutuko aukera izan zuten, esperientziak trukatu. Elkarrekin pasa zuten eguna, eta bazkaria ere egin zuten. [Lizartza](#)

Tolosa



ARTISAUAK ETA LANDAREAK

Asteburuan lore eta landareek Trianguloa plaza eta artisauak San Frantzisko pasea lekua hartu zituzten. Lore eta Landare Azokan hamabost lorezainek jarri zituzten beren postuak eta kolore biziak izan zuten Trianguloa. Artisauak, berriz, hiru egun egin dituzte Tolosan, euren egindako lanak erakutsi eta salatuaz. [Lizartza](#)

Amasa-Villabona



BEHAR ZANA EGUNA OSPATUZ

Behar Zana elkarrekin bere eguna ospatu zuten, larunbatean. Pilota eskolako finalak, joko garbiko partidak, buruhandiak, afaria edota danborrada izan zituzten. Incansables txarangaren eritmorra ere dantza egin zuten. Igandean, berriz, Loatzo musika eskolako ikasleekin diana, eta partidaren ostean bazkaria izan zuten. [Lizartza](#)

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia
- Erradioterapia

Erdi maila

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

AURREMATRIKULAK
Maiatzaren 28tik
ekainaren 8ra

FORMAZIO BERRITZAILEA
ETA KALITATEZKOAK

Tel.: 943 67 36 29 www.inmakuladatotosa.com

Txikien handitasuna nabarmendu dute Larraulen

Escola Txikien 25. Festan, 3.000 lagun elkartu dira; ekitaldi nagusian 120 lagun igo dira taula gainera

Enertiz Maiz Larraul


Larraul txiki geratu zen, igandean. Escola Txikien Festa ospatu zuten, eta bertan elkartu ziren ikasle, irakasle, guraso eta herri-tarrak. Antolatzaileen esanetan, «egunaren zehar parte hartzea 3.000 lagunekoa izan da». Escola Txikien Festa antolatzeko arburua izan duen Larraulgo Guraso Elkartek eta Udalak ekimenaz baliatu «ezin hobea» egin dute.

Suaitzirikin hasitako festa arratsaldeko bitartean ez zuten etenik izan. Pirritz eta Porrotx pailazoek ere 25 urte ospatu zituzten, Larraulen. Escola Txikien Festa rekin batera abiatu zuten euren ibilbidea, eta modu berezian ospatu nahi izan zuten. Gipuzkoako 26 eskola txikietako haurrak igo ziren ohol-tza gainera, eta eskola bakoitzak kantu bat dantza zuten. Pailazoaren emaitza beren ostean, ekitaldi nagusia izan zen.

Hunkigarria bezain bete izan zen, 120 lagun igo ziren eskolaren aurrean prestatu zuten ohol-tza: 23 udal-etako alkateak eta zinegotziak, 26 eskola txikitako irakasleak, eta eskola txikitzen ibili izandako ikasleak eta egun eskola berean ikasle diren haurrak. Martin Garitano Gipuzkoako ahal-dun nagusia eta Bernardo Anzaga idazlea ere bertan izan ziren, besteak beste. Txiki izateak, askotan indar tsingios izatea esan nahi duela adierazi zuten. Herri eta eskola txikien handitasuna aipatu zuten askok eta askok.

Eskolako ikasle bakoitzak usoz mekurari bana askatu zuten. Bukatzeko, Joxux Mari Iraznak idatzitako bertso abestu zuten bertarritako gazteek. Datorren urteko festa antolatzeko lekukoak, berriz, Olaberriak jaso zuten.

Egun osoan zehar, festa antolatzen Larraulgo 150 herritar izan ziren lanean. Eta hainbat lagun inguruko herrietatik ere joan zitzaizkien laguntza.



Areso



HAUR, GURASO ETA ESKOLEN TOPAKETA

Leizta, Goizeta, Arano eta Ansole ikasle, guraso eta eskolek bat egin zuten, larunbatean, Areson. XIII. Topaketak izan dira aurtengoak. Eguraldia lagun, prestatu ekitaldiak bikain ateratu zitzaizkien.

«Oso gustua geratu gaita», antolatzaileek azaldu dute. Bazkai ostean kalejira egin zuten, aldarikapena eta guzti, eta hezkuntzan egin nahi diren

hurriketen aurkako pankarta eraman zuten ikasleek. Fiasmoa grabatu zuten, eta berdintasuna, errespetua eta biziklapena aipatzen ziren. «Aurreikuspenak gaindituz, egun guztian zehar 200 pertsonak gorakatu ginen», azaldu dute. «Eskerrak eman bertaratu zirenei, eta laguntza eskaini zuten guztiei». [Lizartza](#)

19. EDIZIOA
IMH SARIAK
 8.000€tik 24.112.000€tik

EMERITA ZIKLOAK

HEMERTIA ZIKLOAK

Tel.: 943 67 36 29



Joze Manuel Agirrebarrena, Maribi Beldarrain, eta Maider eta Itziar Agirrebarrena, semearen eta anaiaren argazkiarekin. A. IMAZ

Aitor Agirrebarrena lizartzarrak atzo hamar urte bete zituen espetxean. Herritarrek hitzaldi bat antolatu dute gaur, Gunean 20:00etan; espetxeko bizi baldintzen inguruan ariko da hizketan preso ohi bat.

Hamar urteko sufrimendua

Asier Imaz Lizartza

Aitor Agirrebarrena lizartzarrak hamar urte bete zituen atzo. ETako kide izateagatik, 2002ko ekainaren 4ean atxilotu zuen Frantziako polizia, Aubussonen, eta orduz geoztik hamaika ziega ezagutu beharrean izan da, bai Frantzian eta baita Espainian ere. Hamar urte hauetan «jasandako eskubide urraketak salatze», lizartzarren ekitaldi antolatu dituzte aste honetan. Agirrebarrenaren sendiak, bizitzen ari diren egoera kontatzeaz gain, eskerrak eman nahi izan dizkie lizartzarrei, urte guzti hauetan jasotako babesagatik.

Azken hamarkadaz hitz egite-rako unean, mina, beldurra, inpotentzia eta harrotasuna bezalako hitzak erabiltzen ditu Agirrebarrenaren familiak. Garai latzak jasan dituztela diote, baina aldi berean, une hauek esperantza handiarekin bizitzeko ari direla gaineratu dute. «Gauzak laster

↓ Hitzaldia

EKAINAK 6, GAUR

■ **20:00etan.** Preso ohi baten hitzaldia, Gunean.

aldatzea espero dugu, eta baita Aitor kalean izatea ere. ETak borroka armatua utzi du, eta bere borondate osoa erakutsi du bake-rako bidean. Aitor kalera ateratzen bada ez da berriz ETan sartuko, berau deseginda baldin badago, ondorioz, zer-nolako arriskua du eurentzat gure anaia kalean egotea?», galdetu du Maider Agirrebarrenak.

Maribi Beldarrainek, euskal presoaren amak, «gutxienez legea betetzea» eskatzen die Espainiako agintariei: «Hori egingo balute, guri izugarriko pisua kendera liguakete gainetik; bidaia amaigabeak, auto istripuen mamua... zigor luzeena edukita ere, preso arrunten baldintzak izango balitu, laster izango zen kalean. Gaur egun, preso dauden %70a kalean egongo litzateke».

Euskal Herrian «garai berriak» duela hilabete gutxi hasi ziren, eta eurentzat hilabete luzeak izan diren arren, «politikoki» denbora nahikoa ez dela onartzen dute. Hala eta guztiz ere, espetxeetan baldintzak okerrera egin dutela diote: «Eurekin jolasean dabilta, askoz estuago dituzte orain. Aitorri osasuna eta burua zaintzeko esaten diogu, espetxea eurak birgizarteratzeko baino, eurekin akabatzeko diseinaturik dagoelako; baldintzarik kaxkarrenetan dituzte, eta eurentzat bakarrik as-

maturiko legeak jasan behar izaten dituzte. Jasangaitza da berarek bizi duten egoera».

Agirrebarrena Puerto III espetxean dago, herritik 1.100 kilometro ingurura. Hamar urte hauetan bezala, hilero etxeko baten bisita izaten du lizartzarrak. Familiaren esanetan, «osasuna eta eguneroko plangintzan ondorioak ditu dispersioak, eta ekonomikoki zer esanik ez. Hilean, pertsona bakoitzeko, 400-500 euroko kostua suposatzen du».

Dispersio politikaren 2.200 kilometroko egiteko, autobusa edo autoa erabiltzen dute Aitor Agirrebarrenaren senideek. Puerto de Santamariara autobusez joateko, bidaia ostiral arratsaldean hasten da; horrek, familiak Lizartzan duen taberna istea dakar ostiral arratsaldean eta larunbat egun guztian. Etxeraten autobusa 19:30ean ateratzen da Gasteiztik, eta espetxera hurrengo eguneko 08:00etan iristen dira. Bi orduko bisean bisekoaren ondoren, 40 minutuko bisita edukitzen dute kristalarekin. Itzulerako bidaia, euskal preso guztien bisitak amaitzean hasten da, hau da, 20:00ak inguruan. Gasteizera, igandean iristen dira, 07:30ak inguruan. Autoz joatekoak diren anaia, bidaia beste modu batetara antolatzen dute: «Ostiralean atera eta bertan lo egiten dugu, ondo-

ren, bisita amaitu eta itzulerako bidaia hasten da. Lizartzara larunbat gauean iristen gara, 01:00ak inguruan».

Dispersio politikaren ondorioz, Agirrebarrenak hainbat espetxe ezagutu ditu Espainian: Soto del Real, Valdemoro, eta Puerto III, adibidez. Aurrez, Frantzian, La Sante, Fleury eta Normandian, eduki zuten lizartzarra. Senideek ere guztiak ezagutu dituzte, eta oraindik ere, bisita bakoitzaren aurretik, urduritasuna kontrolatzea ezinezkoa egiten zaiela aitortzen dute: «Ez dakizu zer gertatuko den bisita amaitu arte. Normandian adibidez, haur txikiak bederatzi hilabete zituen, nortasun agiria behar zuela

Aitor Agirrebarrena urte eta erdi egon da bakarraldian, Puerto III espetxean

esan ziguten, eta ez zenez, bisitarik gabe utzi ziguten. Aitorrek hau jakin zuenean, izugarriko muntatu zuen, eta bakarraldira edo Mittard-era eraman zuten. Hau hala eta guztiz ere, positiboa izan zen eurentzat, izan ere, honen ondorioz espetxeko preso guztiak altxa egin ziren, baita soziazialak ere. Guztiek Aitorren alde egin zuten, eta bakarralditik ate-

ratzeko eskatu zuten. Espetxe horretan preso guztiak altxatzen ziren lehen aldian izan zen».

Espetxeen egoeraz hitz egitekoan, denetik ikusi dutela diote: «Fleuryn zegoenean, kirola egiteko zapatilak sartu genizkion. Hauek, sare moduko bat zuten gainean, oinek arnasa hobeto hartzeko. Ea nola sartu genizkion horrelako zapatilak esan zigun, patioan arratoiekin ostikoka ibiltzen zirela eta. Puerto III kanpotik oso txukun daukate, baina barruan, guztientzako gunean, telebista, eta gimnasia aparatua guztiak izorratuta dituzte. Preso politikoak direnez, gainera, erabat mugatuta daude; ezin dute liburutegira edo futbol zelai handiago batetara joan, adibidez».

Muga hauek aislamendu egoeran, oraindik eta nabarmenagoak bilakatzen dira. Lizartzarrak duela gutxi irten da egoera horretatik, urte eta erdi ondoren: «Zortzi edo bederatzi ziega dituen modulu berezi batean edukitzen dituzte; eguzkirik ia ez dute ikusten; arropak, argazkia, liburuak... dena mugaturik dute; binaka edo hiruak ateratzen dira 10x3ko patioa, eta bisita gelak edo medikua bertan izaten dute, hau da, 50 metro baina gehiagoko ibilbiderik ez dute. Horrela horrenbeste denboran egotea, egu-nero, benetan beldurgarria da».

Iker Karrerak marka jarri du Hiru Handiak proban eta Amilibia bigarren iritsi da

Anboto mendian harkaitz batean erori egin da amezketarra, eta bekanean kolpe handia hartu du

Erredakzioa

Iker Karrerak irabazi du Hiru Handiak mendi proba. Amezetarrak 10 ordu eta 23 minutu behar izan ditu ibilbide osoa egiteko; denbora horrekin marka berria ezarri du, aurrekoa ordu eta erdian hobetuz. «Bero sargoria eta zakarra egin du, eta lasterketa astuna izan da», adierazi zuen amaitu eta gero, Iker Karrerak. Susto txiki bat ere izan zuen Anboto mendian. Harkaitz batean erori egin zen, eta bekanean kol-



Iker Karrera amezketarra txapela buruan duela podiumean. HITZA

pe handia hartu zuen. «Oso gaizki pasa dut», nabarmendu du mendi lasterkariak.

100 kilometro korrika eginez Gorbea, Anboto eta Aizkorri mendiak pasa behar izan zituzten partaideek. Karreraren atzetik, Javi Dominguez eta Zigor Iturrieta sailkatu ziren.

Lehen emakumea, berriz, Oihana Aizkorbebeitia izan zen, eta honek ere errekorra hautsi zuen, 13 ordu, 37 minutu eta 2 segundoko marka jarritz. Bigarren, irabazlearengandik 10 minutura, Nerea Amilibia zizurkildarra sailkatu zen, guztira 13:47:00ko denbora eginez.

Irudia ◊ Tolosa



3. MAILARA IGO DIRA

Juanma Ordoizgoiti entrenatzailearen eskutik, Hirukide-Tolosala taldeak hirugarren mailara igotzea lortu du, azken urteetako bideari eutsiz; izan ere, bigarren igoera lortu dute azken hiru denboraldietan. Denboraldi osoan erregulartasun paregabea erakutsi dute, eta ia beti sailkapen nagusiko lehen hiru postuetan egon dira. HITZA

Irudia ◊ Leaburu-Txarama



82 ARKULARI LEHIAN

Arconorte 3D Ligako jardunaldia jokatu zen herenegun, Txaraman. Bertan, Euskal Herriko, Palentziako, Soriako, Kantabriako eta Burgosek 82 arkulari elkartu ziren. Antolatzaileen esanetan parte hartzaileak oso gustura ibili ziren, eta eskerrak eman nahi izan dituzte jardunaldia antolatzeko laguntza eman duten guztiei. ERIKA SARASOLA

Alazne Etxeburu bigarren gelditu da Gipuzkoako Sega Txapelketan

Lehenengo edizioa Arrate Garinek irabazi du, eta hirugarren postuan Igaro Balda sailkatu da

Erredakzioa Amasa-Villabona

Arrate Garinek irabazi zuen herenegun Gipuzkoako sega txapelketa, lehendabizikoz. Bigarren Alazne Etxeburu zizurkildarra gelditu zen, 10,5 kilo gutxiagorekin. 20 minutuko saioa bukatu ondoren, Igaro Balda hernialdetarra izan da hirugarrena, 329,5 kilorekin.

Amasa-Villabonan jokatu zen



Alazne Etxeburuak maila bikaina erakutsi zuen herenegun. ERIKA SARASOLA

emakumezkoen I. Gipuzkoako Txapelketa, Euskal Herrian egiten den ohiko eran. Segalari bakoitzak launa sail izan zituen prest, eta lehen bi sailkatuek lehia ikusgarria eskaini zuten. Alazne Etxeburu aurretik ibili

zen, sailak kontuan hartuta, baina pisuan Legorretarraren lana nagusitu zen.

Laguntzaile gisa Bixente Mitxelena izan zuen ondoan zizurkildarrak, eta Juan Manuel Erasun, Igaro Baldak.

Itsaso Leunda Euskadiko txapeldun, Ondarroan

A. Imaz Hernialde

Ondarroako XVIII. Triatloia irabazi zuen larunbatean Itsaso Leundak. Proba, Ondarroako Koxi Triatloi Taldeak eta Euskadiko Triatloi Federazioak antolatu zuten, eta Euskal Herriko zirkui-

turako baliagarria zen. Itsaso Leunda hernialdetarrak garai- pen horrekin Euskadiko Txapelketa irabazi zuen, 2:25:51ko denborarekin. Taldekakoan ere garai- pen lortu zuen Leundaren taldeak, Saltoki Triakidea taldeak, hain zuten ere.

◉ Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



- XIV. URTEURRENA -

INA ZEBERIO

(1998ko ekainaren 5ean eraila)

Mugak haustea izan zenuen helburu. Zure bihotz zabalean milaka pertsonen aurkitu dute aterpe.

Etxekoak

Eskerrak etxekoen partetik, ekitaldietara agertutako guztiei.

Lizartzan, 2012ko ekainaren 5ean



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	21°
HOTZENA	16°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



**Urte askoan!
Katalina eta Iñaki.**

Zorionak eta muxuak, familia guztiaren partetik.



**Urte askoan!
Alaitz Altuna Dorronsoro
(Abaltzisketa).**

Gaur 5 urte! Zorionak eta muxuak, familia osoaren eta bereziki, Maddi, Asier eta Enekoaren partetik.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, 1, Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Bihar jaitsiko den kukuaren zain ere, festa giroan

Larunbatean ospatu zuten Anoetan, Koadrila Eguna, eta herenegun, aldiz, Dantzari Txiki Eguna

Rebeka Calvo Anoeta

Bihar jaitsiko da Anoetako jaiak iragartzen dituen kuku, baina jai giroa, hala ere, lehenago leher-tu da herrian. Ostiral iluntzean herriko dantza taldearen emanaldiarekin hasi zuten jai egitaraua, eta hurrengo egunean, koadrilek beren eguna ospatu zuten.

Urtero bezala, hortaz, jaiak hasi baino lehenago egin dute Koadrila Eguna, eta goizean goiz hasi zuten jai, gainera, kalejira batekin. Bazkaria ere egin zuten eta koadrilen arteko jokoak egin zituzten ondoren, plazan.

Guztia ondo joan zen, baina intokazio arin bat ere egon zen. Hainbat pertsona tripetatik gaizki egon ziren, baina 24 orduko kontu bat izan dela azaldu dute.

Herenegun, aldiz, Dantzari Txiki Eguna izan zuten. Herria Alegia, Ibarra, Irura, Tolosa, Villabona eta Anoetako dantzari gazteekin bete zen, eta saio bikainak ikusteko aukera izan zen.

Gaurko atsedeen egunaren ondoren, beraz, bihar emango diote hasiera ofiziala. Kukuaz gain, ez dira faltako txalapartariak, dantborjoleak, Loatzoko txaranga eta trikitilariak, sardina jatea eta erromeria.

Festetako kartelen erakusketa Herriko festetako kartel lehiaketan aurkeztu diren lanen erakusketa ikusgai dago kiroldegiko sarreran, asteazkena arte, 09:00etik 12:30era eta 15:00etik 21:30era.

↓ Asteburua bitarteko egitaraua

EKAINAK 6, BIHAR

- **18:55.** Txalapartariak Kukuaren etorrera iragarriko dute.
- **19:00.** Plazan jaiari hasiera: Txupinazoa, Kukuaren jaitsiera kanpai hotsekin eta danborrada. Loatzoko txarangaren doinuak ere entzun ahal izango dira.
- **20:00.** Sardina jatea plazan, Kuku elkarteak antolatutako eta Loatzoko trikitilariak alaitutako.
- **23:00.** Erromeria Iratzar taldearekin.

EKAINAK 7, ETZI

- **10:00-13:30.** Ume eta gazte-txoentzako parkea, plazan.
- **16:00.** Birziklatze tailerrak umeentzako, plazan.
- **18:00.** Txokolate jatea plazan.
- **18:30.** Poxpolo Ta Konpainiaren emanaldia, plazan.
- **19:30.** Buruhandi eta erraldioen kalejira, txistularien laguntzarekin.
- **21:00.** Saiheski jatea plazan, ezker abertzaleak antolatutako. Tiketak herriko tabernetan.
- **23:00.** DJ Bull plazan.

EKAINAK 8, OSTIRALA

- **10:00.** XV. Esku Pilota Herri Txapelketaren finalak, Udal Pilota Eskolak antolatutako.
- **11:00.** Jubilatuen arteko Toka Txapelketa plazan.
- **12:30.** Apar Festa umeentzat.
- **17:30.** Play-back plazan.
- **19:00.** Loatzoko talde instrumental kontzertua plazan.
- **20:00.** Buruhandi eta erraldioen kalejira txistulariek lagundurik.
- **23:30.** Kontzertua plazan, Xutik eta Malakaton taldeekin.



Koadrilen Egunean giro ona izan zuten herrian; joko ugari egin zituzten bazkaldu eta gero, plazan. E. MAIZ

ZERGATIK GAIZKI EGITEN jarraitu, ONGI EGIN badezakegu?



Nahastutako bilketa = Kutsadura = Zabortegia/Errauste planta



Gaikako bilketa = Birziklatzea = Osasuna



Osasunagatik
Ingurugiroak kezkatzeko gaituelako
Ongizate arrazoiengatik
Seme-alabengatik
Arrazoi ekonomikoengatik

